

Kaixo, oiartzuar:

Aurten, 2018ko irailaren 29an, [Bizipoza Elkarteak](#) antolatuko du **BIZIPOZAREN JAIA**, Erreterian.

BIZIPOZA izaera bereziko gaiak lantzen dituzten asoziazioz osatutako elkarte da. Gaur-gaurkoz 33 elkartek osatzen dute, eta horietako bi daude gure eskualdean: [Juneren Hegoak](#) eta [Mindara](#). Elkarte hauek zailtasun sozialak dituzten familiak eta desabantaila sozialean dauden haurrak eta familiak laguntzea dute helburu.

Elkarte horiek Erreteriarako Udalarekin elkarlanean antolatuko dute jaia, baina, jaia aurrera eraman ahal izateko, behar beharrezkoa da Oarsoaldeko eragile eta norbanakoak ere bertan parte hartzea.

Auzolanean antolatzen den jai honetan parte hartzeko modu ezberdinak daude, batetik, elkarte edo eta eragile bezala, eta, bestetik, norbanako moduan. Oiartzuarroko auzolana zer den betidanik ederki ezagutzen dugunez ziur gaude jai honetan ere parte izango garela herri bezala.

Antolaketa lanak burutzeko, herritar eta eragileon parte-hartzea bideratzeko, hainbat bide zabaldu ditugu dagoeneko:

1.- [Bizipoza jaia 2018](#) helbidean, bi formulario aurkitu daitezke:

1.1.- Egunean bertan boluntario lanak burutzeko informazioa eta izena emateko formularioak. Boluntario lanak burutu nahi dituzten herritar edo eragileek zein lan mota izango diren egunean bertan burutzeko zehaztua dago, ordutegiarekin batera.

1.2.- Irailaren 29an egun osoko egitaraua Erreteria eta Oarsoaldeko eragileekin elkarlanean burutzea denez, eragile bakoitzak egitarauan zein modutan parte hartu nahi duzuen zehazteko formularioa dago bertan.

2.- Aurrez aurre, Juneren Hegoak-en egoitzan (Martin Etxeberria Kalea, 15 bajo, Erreteria), goizetan, **ilargi koordinatzailea** bertan izango da herritar eta eragileen ekarpenak, zalantzak, galderak....konpartitu ahal izateko. Beraz, bertaratzeko aukera ere baduzue herritar eta eragileek.

3.- Herritar eta eragileen eskura daude ilargi@bizipoza.eus helbidea edo 688744832 telefono zenbakiak ere.

Bukatzeko eskerrak eman Bizipozaren eguna elkarlanean aritzeko prestutasuna izango duzuen herritar eta eragile guztiei, denon artean izango baita posible irailaren 29an Bizipozaren herri bilakatzea Erreteria eta guztiok elkarrekin eraikiko dugulako **GUZTIONTZAT BEHARKO LUKEEN MUNDUA**.

